

KULTURARTEKOTASUNA HAUR LITERATURAN

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: UXOA AGIRREZABAL

ZUZENDARIA: XABIER ETXANIZ ERLE

ESPEZIALITATEA: LEHEN HEZKUNTZA

2022/2023

LABURPENA:

XXI. mendeko 2. hamarkadan gizarte kulturantz batean bizi gara. Hori dela eta eskolaren egungo erronka handienetako bat kulturartekotasuna sustatzea da, bizikidetzan on bat bermatu ahal izateko. Horretarako baliabide garrantzitsuak dira euskarazko haur literaturako (EHL) liburuak.

Lan honetan aztertu nahi izan da LHko 1.zikloko haurren irakurgaietan nola islatzen den EAEko egungo errealitatea. Horretarako ikerketa kuantitatibo baten bidez, gai orokorreko buruzko literatur-liburuak eta kulturartekotasunaren gaiarekin zerikusi zuzena dutenak aztertu dira. Bertan ondorioztatu da orokorrean EHLko liburuek ez dutela islatzen errealitate kulturantz hori. Hala ere, nabarmentzekoa da badirela kulturartekotasuna sustatzeko liburu oso egokiak. Horietako batzuk lan honetan aztergai izan dira eta gomendio zerrenda batean bildu dira.

Hitz gakoak: euskarazko haur literatura (EHL), kultur-aniztasuna, kulturartekotasuna, migrazioa.

RESUMEN:

En la segunda década del siglo XXI vivimos en una sociedad multicultural. Por ello, uno de los grandes retos actuales de la escuela es fomentar la interculturalidad para poder garantizar una buena convivencia. Para ello los libros de literatura infantil en euskera son un recurso muy importante.

En este estudio se ha querido analizar cómo se refleja esa realidad multicultural en las lecturas infantiles de 1º ciclo de educación primaria en la CAV. Con este objetivo, a través de una investigación cuantitativa, se han analizado, por una parte, libros de literatura de temática general y, por otra parte, libros de literatura que tratan directamente el tema de la interculturalidad. En este estudio se concluye que, en general, los libros de literatura infantil en euskera no reflejan esa realidad multicultural. Aun así, habría que remarcar que existen libros muy adecuados para fomentar la interculturalidad, libros que en este trabajo han sido analizados y recopilados en una lista de recomendación.

Palabras clave: literatura infantil en euskera, multiculturalidad, interculturalidad, migración.

SUMMARY:

In the second decade of the 21st century we live in a multicultural society. For this reason, one of the great current challenges of school is to promote interculturality in order to guarantee a good coexistence. For this, children's literature books in Basque are a very important resource.

In this study we wanted to analyze how this multicultural reality is reflected on children's books during the 1st cycle of primary education in the BAC. With this objective, through a quantitative investigation, we have analyzed, on the one hand, general-themed literature books and, on the other hand, literature books that directly deal with the issue of interculturality. This study concludes that, in general, children's literature books in Basque do not reflect this multicultural reality. Even so, it should be noted that there are very suitable books to promote interculturality, books that in this work have been analyzed and compiled in a recommendation list.

Keywords: children's literature in Basque, multiculturalism, interculturality, migration.

0. AURKIBIDEA:

1. SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA	4
2. MARKO TEORIKOA	5
2.1. Migrazio fenomenoa.....	5
2.1.1. Inmigrazioaren seme-alabak.....	6
2.1.2. EAEko errealitatea.....	6
2.1.2.1. Atzerriko ikasleak.....	7
2.1.2.2. Guraso atzerritarrak dituzten ikasleak.....	9
2.2. Kultura, kultura aniztasuna eta kulturartekotasuna.....	10
2.2.1. Kulturartekotasuna hezkuntzan.....	11
2.3. Haur literatura eta baloreak.....	15
2.4. Fitzpatricken eskala.....	18
3. BURUTUTAKO IKERKETA	20
3.1. Helburuak eta hipotesiak.....	20
3.2. Metodologia.....	21
3.2.1. Ikerketarako erabilitako corpusak.....	21
3.2.1.1. A corpusa: Liburu orokorrak.....	21
3.2.1.2. B corpusa: Liburu espezifikoak.....	22
3.2.2. Behaketarako erabilitako kriterioak.....	22
3.3. Emaizak.....	23
3.3.1 A corpuseko azterketaren emaitzak.....	23
3.3.2. B corpuseko azterketaren emaitzak.....	25
4. ONDORIOAK	27
4.1. Hipotesien ondorioak.....	27
4.1.1. A corpuseko hipotesien ondorioak.....	27
4.1.2. B corpuseko hipotesien ondorioak.....	30
4.2. Ikerketaren ondorioak.....	33
4.3. Ondorio orokorrak.....	34
4.4. Zailtasunak eta aukera berriak.....	35
5. BIBLIOGRAFIA	37
6. ERANSKINAK	40
1. eranskina: Zarauzko udal liburutegiko haur saileko liburu mailegatuenen (LHko 1.ziklokoak) zerrenda.....	40
2. eranskina: A corpuseko liburu-zerrenda (liburu orokorrak).....	46
3. eranskina: B corpuseko liburu-zerrenda (liburu espezifikoak).....	48
4. eranskina: A corpuseko liburu azterketa (liburu orokorrak).....	49
5. eranskina: B corpuseko liburu azterketa (liburu espezifikoak).....	126
6. Eranskina: LHko 1.zikloan kulturartekotasuna sustatzeko EHLko liburu zerrenda.....	176

1. SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA:

Gaur egungo Euskal herriko kale eta eskolek kultura ikuspegitik oso irudi plurala erakusten dute eta integrazio ezak sortzen dituen bizikidetza arazoak eskola testuinguruan eta gizartean oso presente daude. Egoera honi irtenbidea jartzea guztion ardura da.

Eskola umeen arteko harremanetarako espazio naturala da, zenbaitetan kalea ere baden bezala. Baina eskolan harreman horietan bitartekaritza egin dezaketen pertsonak daude eta horien ardura da beste balio batzuen artean kulturartekotasuna harreman horietan sustatzea.

Horretarako euskarazko haur literatura (EHL) baliabide egokia izan daiteke. Hori dela eta azterketa honen helburua EHLko liburuetan Euskadiko Autonomia Erkidegoan (EAE) bizi dugun kultur-aniztasuna islatzen ote den eta liburu horiek kulturartekotasuna sustatzeko baliagarriak diren aztertzea da.

Halaber, kulturartekotasunarekin duen ezinbesteko loturagatik, liburuetan migrazioaren gaia lantzen den edo ez ere behatu da.

2. MARKO TEORIKOA:

2.1. MIGRAZIO FENOMENOA

Kulturartekotasuna lantzeko aintzat hartu behar ditugu inguruan ditugun kulturak eta bakoitzaren jatorria. Beste kultura horiek nondik datozen jakiteko, gurera iristeko bidea kontuan hartzea garrantzitsua da. Hau da, migrazio bidea.




Izan ere, kulturartekotasunaz ari garenean, besteen bizitzen errelatoetan hain eragin handia izan duen migrazio bide hori, askotan esperientzia traumatiko bat izan daitekeena, ezin da aintzat hartu gabe utzi elkar hobeto ulertu eta bizikidetzaz sustatzeko.

Jose Antonio Oleagak *La diversidad infantil y juvenil en la CAE. La (mal) llamadas segundas generaciones* lanean aipatzen duen moduan, migrazioak gizakiaren historiako fenomeno sozial zahar eta zirrargarrienetako bat dira. *Australopithecus afariensis* espeziekoen zuhaitzen jaitsierarekin hasi zen gizateriaren migrazio-prozesua, pertsonen bizi-baldintzak hobetzeko etengabeko eta amaierarik gabeko prozesua. (Oleaga, 2017)

Bi migrazio mota bereizi ohi dira: emigrazioa eta immigrazioa. Herrialde batetik joaten direnak emigranteak dira eta etortzen direnak immigranteak.

Betidanik herritar askok beraien jaioterritik beste lurraldeetara emigratu behar izan dute, askotan beraien lurraldeetako egoerak bultzatuta eta gaur egun baita globalizazioak eragindako migrazio-mugimenduen ondorioz ere.



Euskaldunak ere izan dira migranteak, Euskadi emigrazio lurralde izan da eta emigrazio-lurralde izatetik immigrazio-lurralde izatera igaro da duela gutxi. XIX. mendearen amaieraz geroztik, migrazio-prozesua alderantzikatu da, eta, orain, XXI. mendearen hasieran, gure gizartearentzat berria den migrazio-prozesuen ñabardura bat ari gara ikusten eta ezagutzen: atzerriko immigrazioa, zeinak praktika kultural berriak ekartzen baitizkie euskal komunitatearen askotariko jardueri (Oleaga, 2017). Izan ere, atzerriar jatorriko pertsonen kolektiboa oso heterogeneoa da.

Ondorioz, azken hamarkadatan, gure gizartean bereziki areagotu da aniztasuna, aniztasun soziala eta kulturala. Hau immigrazioaren ondorio zuzena da eta adituek diote, immigrazio fenomenoak jarraituko duela, pertsonak etortzen jarraituko dutela. Beraz, gizartean eta eskola testuinguruan kultura aniztasuna aintzat hartu eta kulturartekotasunaren gaiari errotik heldu behar zaio.

2.1.1. Inmigrazioaren seme-alabak

Gizarte-egitura kulturantz horren barruan, etorkinen bigarren belaunaldia, inmigrazioaren seme-alabak, interes handikoak dira komunitate zientifikoarentzat, haien gizarteratze- eta gizarteratze-mailaren mende baitago, hein handi batean, gizartearen etorkizuna (Portes eta Rumbaut, 2001, in Oleaga, 2017)

Izan ere, Nazioarteko esperientziak erakusten du bizikidetzaren eta aniztasun-ereduek garrantzi berezia

hartzen dutela bigarren belaunaldien gizarteratzean eta gizarte-mugikortasunean (Fernandez, Shershneva eta Fouassier, in Oleaga, 2017).

Beraz, migrazioen soziologian, familia etorkinen seme-alaben identitatea alderdi garrantzitsua da integrazio-prozesuarekin eta kultura-egokitzapenarekin lotura zuzena duelako.

Kontutan hartu beharreko kolektiboa dira. Jasaten dituzten diskriminazio anitzeko egoerengatik eta gurasoen bizipen eta ibilbideengatik ematen zaien estatus sozialagatik (Mosku, 2007, in Oleaga, 2017). Baita etxeko eta eskolako kultura, etorkinen kasuan bezala, ezberdinak izan ohi direlako ere.

2.1.2. EAeko errealitatea

Datuek erakusten dute migrazioarena fenomeno esanguratsua dela. Izan ere, immigrazioari esker, EAeko biztanleriak gora egin du azken 20 urteetan. 2022ko datuen arabera, espainiar estatutik haratago etorritako 186.630 etorkin daude EAEn, populazioaren %8,5.


Ehuneko hori 2021eko urtarrilaren 1ekoa baino 2 hamarren handiagoa da. (Eustat, 2023).



EAEEn, Hego Amerikako pertsonak atzerriko nazionalitatea dutenen %25,66 dira. Bizkaian ere Hego Amerikarrak dira gehiengoa (etorkinen %31,34), Araban berriz, Magrebeko herrialdeetakoak (etorkinen % 27,37) eta Gipuzkoan Amerikako gainontzeko nazionalitateak dira nagusi (etorkinen %22,38).

EAEEn Magrebeko herrialdeetako pertsonak atzerriko nazionalitatea dutenen %18,55 dira (Marokokoak gehiengoa) eta Amerikako gainontzekoak berriz %15,17. Ekialdeko Europatik datoz %14,57a, errumaniarrak gehienak. Gainerako Europa (%8,85), gainerako Afrika (%8,63) eta Asia eta Ozeania (%8,54) paretsu daude kopuruetan.

Gainerako Afrikan Senegal eta Nigeriakoak dira gehiengoa eta Asia eta Ozeaniaren kasuan, presente dauden ia herrialde bakarrak Txina eta Pakistan dira.



2.1.2.1. Atzerriko ikasleak

Hezkuntza testuinguruan ere, ikasle atzerritarren matrikulazioek ikastetxe batzuk eraldatu dituzte, eta atzerriko ikasleen presentzia nabarmenagoa da. Ikasle horien ehunekoa aldatu egiten da ikastetxe motaren, kokapenaren, hizkuntza- eta hezkuntza-eskaintzaren eta ikastetxe horrek eragiten duen kostuaren arabera (Fullaondo, 2017, in Oleaga, 2017)

Ikasle atzerritarren banaketa lurraldeen arabera. 2020-21.



Hezkuntza Saileko Estatistika Zerbitzuak atzerritar gisa definitzen ditu espainiar nazionalitatea ez duten ikasleak. Honen arabera, lehen hezkuntzan atzerriko ikasleak %15 gehitu dira bi urtean eta %73,4a sare publikoan dago matrikulatuta. Hona hemen Euskadiko Kontseiluak egindako txostenetik ateratako datu batzuk. (Hezkuntza Euskadin, 2019-2021):


	Haur H.	Lehen H.	IE L H.	DBH	IE DBH	Batx	EMLH	GMLH	OLH	ZI	GUZTIRA
2018-19	7.681	10.437	78	5.751	54	1.244	1.468	1.378	1.128	52	29.271
2019-20	8.184	11.456	92	6.130	51	1.282	1.600	1.496	1.330	58	31.679
2020-21	7.847	12.003	82	6.096	65	1.404	1.757	1.657	1.444	52	32.407
Δ 2 urte	2,2	15,0	5,1	6,0	20,4	12,9	19,7	20,2	28,0	0,0	10,7

Hurrengo taulan, ikasle atzerritarren herrialde-taldeak eta bi sareetan duten banaketaren arabera jasotzen dira (Hezkuntza Euskadin, 2019-2021):

	Guztira	%	Publikoa	%	Pribatua	%
Erdialdeko Amerika	3.923	12,2	2.477	11,4	1.446	13,82
Ipar Amerika	242	0,8	89	0,4	153	1,46
Hego Amerika	7.583	23,5	4.672	21,5	2.911	27,82
Asia	3.289	10,2	1.950	9,0	1.339	12,80
Afrikako iparraldea	7.744	24,0	6.075	27,9	1.669	15,95
Afrika erdialdea eta hegoaldea	3.304	10,3	2.569	11,8	735	7,02
Europar Batasuna	5.073	15,8	3.245	14,9	1.828	17,47
Europako gainerakoak	973	3,0	617	2,8	356	3,40
Ozeania	11	0,0	4	0,0	7	0,07
Ezezaguna	66	0,2	45	0,2	21	0,20
GUZTIRA	32.208	100,0	21.743	100,0	10.465	100,00

Jatorriaren arabera, ikasle gehien dituzten taldeak kontuan hartuta, % 36 Erdialdeko Amerikatik datoz eta % 24 Afrika iparraldetik. 2018-19 ikasturteari dagokionez, 2020-21 ikasturtean behera egin du Europar Batasunetik etorritako ikasle atzerritarren kopuruak (% 18,3), eta gora egin du Erdialdeko eta Hegoaldeko Ameriketatik etorritakoen kopuruak (% 33).

Lehen hezkuntzan, ikasle atzerritar gehienak D ereduan (%76,8) daude eskolaratuta, %18a B ereduan eta %5,2a A ereduan.



2.1.2.2. Guraso atzerritarrek dituzten ikasleak

Fernández Aragón, I., Shershneva, J. y Fouassier Zamalloa, M. (2017) ikertzaileek *La diversidad en las aulas: perspectiva cuantitativa (6-16 años)* ikerlanean dioten bezala, Lehen Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasle askok bertako nazionalitatea dute (hamarretik bederatzi Euskadin jaioak dira) baina beren gurasoak izan ziren, arrazoi ezberdinak tarteko, EAera migratu zutenak, gehienak 1999-2007 urteen artean. Gurasoen jatorri geografikoari dagokionez, ikerlan beretik hartutako beheko grafikoan ikus daitekeen moduan, latino-amerikarrak dira ia kasuen erdietan (%45,1) eta ondoren afrikarrak (%29,9). Ekialdeko Europako gurasoen presentzia %18,1ekoa da eta Asiakoena berriz %6,9.



Beraz, aniztasunaren kudeaketan kontuan hartu beharreko talde anitza dira.

Bizilekuari dagokionez,

ikerketa bereko beste

grafiko batek erakusten du,

gehienak Bizkaian daudela

eta zentruaren titulartasunari

dagokionez berriz,

proportzio handi batek

ikastetxe publikoetan

(%72,8) ikasten duela..

Gráfico 1. Distribución por TT.HH., %





Gráfico 2. Tipo de centro, %



Ikasle hauetako gehienak D ereduan matrikulaturik daude.

2.2. KULTURA, KULTURA ANIZTASUNA ETA KULTURARTEKOTASUNA

Gure gizartera datozen etorkinek beren kultura propioa dakarte, eta, beraz, kultura hori ahaztu eta bertakoa txerta dezaten saiatzea ez dator bat elkarbizitzaren, errespetuaren eta elkartasunaren printzipioekin (Hidalgo, 2017).

Horregatik, garrantzitsua da kulturaren, kultura aniztasunaren eta kulturartekotasunaren arteko desberdintasunak zeintzuk diren jakin eta terminoak argitzea.



Rakel Oionek *Educación intercultural, la óptica del Norte* lanean aipatzen duen moduan, kulturaren definizio ugari daude. Zentzu zabalean, kulturak barne hartzen ditu bai balioen, sinesmenen, arauen eta harreman sozialetarako moduen sistema, bai sortutako objektuak eta ekoizpen ekonomiko, artistiko eta abarren teknikak. (Oion, 2003)

Amelia Barquínek *¿Qué debe hacer la escuela con las culturas familiares del alumnado inmigrante?* lanean aipatzen duen bezala, kultura, oro har, gizatalde baten ezaugarri diren berezitasun espiritual, material, intelektual eta afektiboak dira. Baina beharrezkoa

da ulertzea, kulturak ez direla konpartimentu estankoak, eraginak elkarrekikoak direla eta zaila dela haien artean muga garbiak ezartzea, ezaugarri asko partekatu, gainjarri eta erraz segmentatu ezin diren ñabardurak hartzen dituztelako. (Barquín, 2015)

Kultur-aniztasuna terminoak, aldiz, soilik egoera jakin baten berri ematen du, non, kultura bat baino gehiago antzeman dakioken espazio jakin bati. Kontzeptu deskriptiboa da (Rodríguez. F, 2020). Ildo berean, Quintanak (1992), Jordanek (1996) eta Del Arcok (1998), beren lanetan aipatzen dituzten definizioei erreparatuta, esan dezakegu kultura-aniztasuna terminoak espazio fisiko berean dauden kultura desberdinen justaposizioari soilik egiten diola erreferentzia, baina aberastea ekarri gabe, hau da, elkarren artean trukerik egon gabe.

Kulturartekotasunak, berriz, kulturen arteko erlazioari egiten dio erreferentzia. Kultur-aniztasuna ematen den espazioetan, kulturartekotasuna gertatzen da, baldin eta espazio horretan elkarrekin bizi diren kulturen artean komunikazioa ematen bada. Horri esker, elkar aberasten dira eta berdintasun esparru batean bakoitzak bere kulturaren aintzatespena eta balorazioa jasotzen ditu (Buendía, 1992, Quintana,1992 , Jordan, 1996 eta Del Arco,1998, in Hidalgo 2017).



Aniztasuna behar bezala kudeatzeko gai diren gizarteak dira arrakastatsuak eta etorkizun onena dutenak. Beraz, oso garrantzitsua da gure aniztasuna egoki kudeatzea. (Oleaga, 2017). Espazio bera konpartitzen duten kulturen arteko harremana koexistentzia hutsa izan ez dadin, kulturen arteko ezagutza, elkartrukea eta bizikidetzaren aberasgarria sortzeko, kulturartekotasuna sustatu behar da.

2.2.1. Kulturartekotasuna hezkuntzan

Gaur egun, EAEko hezkuntza sisteman, nazionalitate eta jatorri atzeritarra duten ikasleez gain, etorkinen seme-alabak ere eskolan daude; hemen jaio dira haietariko asko eta lehen edo bigarren belaunaldi autoktonoa dira. Haietariko ugari arrazializatuak dira gizarte



nagusiki zuri honetan eta geihengoarenak ez diren ezaugarri kultural eta erlijiosoak dituzte (Barquín, 2022).

Hezkuntza sistema saiatu da fenomeno honi erantzuna ematen, baina inklusioak erronka handia eskatzen du eta norantza onean aurrera pausuak eman diren arren, oraindik ere zenbait alderditan eskolak ez dira denoi aukera berdinak eskaintzen dizkiguten espazioak.



Izan ere, Salinasen ustez, oraindik amildegibat dago kulturartekotasunaren kontzeptuak (alderdi akademikoan eta unibertsitarioan) izan

duen garapen ikaragarriaren eta ikasgeletan benetan egiten diren kulturen arteko praktika urrien artean (Salinas, 2010, in Barquín 2015).

Amelia Barquíenen aburuz, gaur egun oraindik, desberdin gisa adierazia ez izateko eskubidearen eta hezkuntza-testuinguru batean aniztasuna kudeatzeko beharraren artean oreka bilatzeak erronka suposatzen du (Barquín, 2015).

Kulturen arteko hezkuntzaren helburua pertsonen beren nortasun-ezaugarriak landu eta garatu ahal izatea da. Baina, aldi berean, baita beste pertsonen berdintasunean komunikatzeko eta onartzeko duten gaitasuna garatzea ere. Kulturen arteko hezkuntza, zentzu zabalean, kultura-trukeekin zerikusia duen guztiaz arduratzen da, baina, bereziki, eskoletako eta eskolaz kanpoko biztanle guztiei edo gehienei dagokienez, zailtasun-, desabantaila- edo gutxiengo-egoeraren batean dauden biztanleria-sektoreetara bideratzen du arreta. (Oion, 2003)

Kulturarteko hezkuntzaren helburu nagusienetarikoa aniztasun kulturala dagoen gizartean biziko direnen formakuntza aurrera eramatea da, guztien arteko elkarbizitza kalitatezkoa izan dadin. Horretarako gainontzekoen kulturak ezagutu eta ezberdintasun kulturalak ezaugarri baliotsu bezala ulertu behar dira (Jordán, 2012).



Eskolak, mundu anitz batean bizitzeko herritarrak prestatu behar ditu eta horretarako funtsezkoa da identitate kultural guztiak aitortu eta balioestea, kohesioa eta gizarte berdinkidea lortzeko bidean. Kulturartekotasuna, gure errealitatea ikusteko eta aztertzeko modu berri bat da. Diskurtso hau ez da ikasle atzerritarrentzat soilik, ikasle guztientzat eta hezkuntza komunitate osoa hartzen ditu bere baitan (Piko, 2020). Kultura, hizkuntza eta erlijio desberdinen arteko harreman horizontalak sustatu eta elkarbizitza gatazkak gutxitzea da helburua.



Sarritan eskolako eta etxeko kulturak oso ezberdinak dira eta ikasleei kostatu egiten zaie bi errealitate paralelo horien arteko lotura egitea. Carbonellek dio (2002:43), «Ikasle batek ezin dio zentzurik aurkitu bere familia-testuinguruaren inolako erresonantziarik ez duen ikastetxe bati, bere hizkuntzaren eta kulturaren balioen aitortzen ez duen ikastetxe bati».

Ngozi Adichiek *El peligro de la historia única* liburuan (2018) dio etorkinen kulturarekiko ezagutza eta aitortza falta ohikoa izan ohi dela askotan. Historiaren errelato bakarrak estereotipoak sortzen ditu eta hauek osatugabeak dira. Pertsona, herrialde edo kultura bat kontakizun batera murrizteak arriskuak ditu. Kultura bat behin eta berriz gauza bakar bat bezala erakusten badugu, azkenean kultura hori gauza bakar batean bilakatzen dugu. (Ngozi Adichie, 2018). Eskola etxean beste kultura bat duten ikasleak bertako kulturari integrazteko ahaleginetan zentratu eta itsutzen da askotan, beraien kulturak ezagutzeko saiakera handirik egin gabe.



Irakasleen lana da, beraz, zer diren eta zer duten aitortzea, eta beren garrantzia ematea. Izan ere, askotarikoak gara baina batzuetan, ikasle guztiak hainbat alderditan desberdinak direla transmititu beharrean, sarri ezberdinak batzuk baino ez direla transmititzen da (Barquin,2015).

Delgadok dio ezberdintasunak besterik ez daudela, eta mundu guztia dela, izatez, desberdina eta bestelakoa (Delgado, 2002, in Barquín, 2015). Eskola inklusiboak balio gisa onartzen du desberdintasuna,

eta, beraz, mundu guztia izan daiteke horren parte berdintasun-egoeran. Desberdintasun individualen aitorten horrek aniztasuna aitortzera garamatza. Horrela, aniztasuna ezberdintasunak aitortzea eta balioestea da. (Alemañy, 2009)


Baina Carbonellen ustez:

Kulturarteko hezkuntzaren helburua ez da izan behar aniztasuna errespetatzea eta tolerantzia gurtzea, baizik eta desberdinak baino berdinoak garela sinestea. Konbentzimendu hori eta hari lotutako balioak eta jarrerak heztea oso lan zaila eta konplexua da (Carbonell, 2002:47).

Guztiok ezberdinak garela eta ezberdintasun hauek praktikan gure bizipenak modu positiboan aberasten dituztela transmititzea garrantzitsua da. Baina ahaztu gabe, oinarrian desberdinak baino berdinoak garela eta askotan elkarren arteko ezagutza falta dela distantziarik handiena.



Esan daiteke beraz, kulturarteko hezkuntza, hezkuntza ulertzeko modu bat dela, errespetuan eta aniztasun kulturalaren balioespenean oinarritzen den hezkuntza ikuspuntua; gizarteko kide guztioi eta bakoitzari zuzendua dagoena, interbentzio eredu bat (formala eta informala) proposatzen duena, integratua eta guztien aukera berdintasunean oinarritzen dena, baita arrazismoa gainditzen duena ere (Sáez, 2001).



Kulturarteko hezkuntza beraz egunero landu beharko litzateke ikasgelan, ohiko zereginaren barruan eta inoiz ez modu isolatuan. Horretarako hezkuntza-komunitate osoaren parte-hartzea ezinbestekoa izango da. Eta kurrikulumak kultura-aniztasuna jaso beharko du, bai edukietan, bai garatutako metodologian eta baita erabilitako hezkuntza baliabideetan ere.

Baliabideei dagokionez, sarreran aipatu bezala, haur literaturako liburuak egokiak izan daitezke kulturartekotasuna lantzeko.

2.3. HAUR LITERATURA ETA BALOREAK

Eskolaren funtzio nagusietako bat irakurtzen irakastea eta irakurtzeko ohitura sustatzea da. Literaturako liburuak, ezinbesteko laguntza dira helburu hori lortzeko, irakurtzeko ekintza trebetasun edo trebetasun soila baino askoz gehiago baita.



Euskal kurrikulumak dio (Eusko Jaurlaritzak, 2015) helburua literaturaz gozatzea dela, genero askotako literatura testuak irakurriz eta entzunez, bai euskal literaturakoak, bai inguruko literaturetakoak, bai literatura unibertsalekoak. Jarduera horiek gozamina eman behar diote ikasleari, eta baliatu behar ditu sentikortasun estetiko handitzeko, hizkuntza aberasteko eta nortasun kulturala, soziala eta pertsonala eraikitzeko.

Abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoak, maiatzaren 3ko 2/2006a aldatzen duenak, besteak beste irakurketaren sustapena eta liburutegien erabilera azpimarratzen ditu.

Eta bederatzi bis puntuan aurreko legearen zenbait paragrafo aldatzen dira, d puntua da horietako bat: Literatura bere burua eta besteak ezagutzeko eta norberaren ongizate emozionalerako abiapuntu bihurtzeko, bai eta genero-ikuspegitik edo etnien eta kulturen arteko iraunkortasunetik indarkeria prebenitzearekin lotutako jarrerari buruzko gogoeta egiteko abiapuntu ere.

Literaturak bestela deskubrituko ez lituzkeen mundu posible batzuetara eramaten du irakurlea, beste sakonera batzuetan murgiltzeko, errealitatea irakurtzeko, egunerokotasunari distira emateko, esentzian garenarekin lotura egiteko eta bere burua gizabanako gisa eraikitzeko aukera ematen dio. Literatura irakurtzeak, besteak beste, identitatea eraikitzen laguntzen du.



Izan ere, ipuinen bidez, haurrek, pertsonaiek bizi dituzten egoeren inguruan arrazoitzen dute eta testuan agertzen diren ideiak haren bizi esperientziekin erlazionatzen dituzte, haren bizitzaren inguruan hausnartzera bultzatuz. Gainera, ideia eta idealak banatzeak, tramarekin gozatu edo sufritzeak, ipuina

baloreak, sinesmenak, ideologiak eta ideiak transmititzeko baliabide ezin hobeak bihurtzen du.

Chambers-en aburuz:

Literaturak gizabanako gisa eraikitzen laguntzen du komunitate baten barruan. Behin hitz egiteko gai garenean, kontatzen dizkiguten istorioek nor garen, nondik gatozen eta hemen zergatik gauden galderei erantzuten die. Gure familiari, gure komunitetari eta munduari buruzko istorioak entzuten ditugu, eta horien bidez denboran eta espazioan kokatzen gara, eta poliki-poliki gure izenez deitzen ditugun identitateak eraikitzen ditugu (Chambers, 2007:66).



Literatura-irakurketaren alderdi sozial eta emozionalari erreparatzen badiogu, ohartuko gara ikasgelarako baliabide aparta direla. Izan ere, literaturak, errealitatea behatzeko hainbat aukera eta ikuspegi berri daudela jakiteko aukera ematen digu, munduaren ikuspegia zabalduz eta kultura trukerako aukera aparta eskainiz.

Literaturak beraz, gure identitateak eraikitzen laguntzeaz gain, kultur unibertsoetarako ateak zabaltzen ditu. Honi buruz, hauxe dio Michelè Petit adituak:

(...) irakurketa batzuk leku desberdinetarako eta amets-uneetarako atea zabaltzen dute, barne-herrialde bat eraikitzeko, barne-espazio bat eraikitzeko, eta autonomizazio-prozesua sendotzeko, subjektu-posizio bat eraikitzeko aukera eskainiz. Baina irakurketak kontakizun bat ere posible egiten du: irakurtzeak ahalbidetzen du narrazio-jarduera bat abiaraztea eta loturak sortzea istorio baten kate-mailen artean, talde batean parte hartzen dutenen artean eta batzuetan kultura-unibertsoen artean. Batez ere, irakurketa honek ez duenean pertsona bakoitzaren esperientziaren kalko bat eskaintzen, metafora bat baizik (Petit, 2009:27).



Bestearekin elkartzeko ere balio digu literaturak. Hau da, literatura irakurtzen dugunean nahi adina pertsona desberdin bihurtu gaitzke, gu geu izaten jarraituz. Hauxe dio Petitek honi buruz:

Bestearen bidez desbideratuz, geure zati ezkutuak elaboratzen ditugu; urruntasunaren bidez, pentsamenduaren funtsezko amets hori aurkitzen dugu; kultura desberdinak harremanetan jarriz, gure barne-espazioa handitzen dugu. Bizi-desbideratzea, bakoitzaren egoera pertsonala hausten duten bide ezezagunetara eramaten duena; desira mugimenduan jartzen duena, bihotza kargatzeko eta, hitzen azpian, partekatzen diren emozio sekretuak berreskuratzeko aukera ematen duena (...). Ia arao bat da. Era berean, harrera egiten duen leku bat topatzeko aukera ematen du (Petit, 2009:277, 295).

Petitek dioen moduan, irakurtzen den bitartean, espazioaren eta denboraren mugak hausten dira, leku eta une desberdinak konkistatzeko. Irakurketak egunerokoa eraldatzen du, irakurlearen eta testuaren arteko harreman bakar eta errepikaezina sortzen du. Adimena harmonizatzen du, emozioak, sentsazioak, desioak eta bizitza aberasten ditu, eta pertsona prestatzeko oinarritzko tresna da.



Beraz, esan dezakegu, irakurketa literarioa baliagarria dela norberak espazio bat elaboratu ahal izateko eta bakoitzak bizi dituen unibertso kultural desberdinak uztartzeko.

Irakurketaren bidez hizkuntza gaitasunak ere eskuratzen dira. Hau oso garrantzitsua da bereziki etxean beste hizkuntza bat dutenen kasuan. Euskal gizartean integratzeko garrantzitsua da euskara ikastea, euskara ikasi ezean, haur horiek ez lituzkete besteek dituzten aukera berberak izango eta ez genuke gizartearen barne kohesioa bultzatuko. Hizkuntza ezagutzeak, bata bestearekin uztartzeko moduak errazten ditu, adierazteko bide berri bat zabaltzen du. Zentzu honetan Barquinek dio euskara ikastea ikasle guztien eskubidea dela eta inklusioa bermatzeko bidea errazten duela. Ondorioz, etorkinen seme-alabek euskara ikastea euskararen etorkizuna bermatzeko faktore garrantzitsua da (Barquín, 2022).



Irakurketaren bidez eskola testuinguruan kulturartekotasuna lantzeko, gure gizartean biltzen den kultura-aniztasuna errespetatzen duten testuek gero eta funtzio garrantzitsuagoa bete dezakete beraz. Baina, aitzitik, aipatutako guztiagatik balioak transmititzeaz gain, kalitate literarioa mantenduko duten liburuen erabilera sustatzea garrantzitsua da.

2.4. FITZPATRICKEN ESKALA

Thomas Fitzpatrick dermatologoak 1975an larru azaleko kolorearen arabera eskala bat sortu zuen, Fitzpatrick eskala gisa ezaguna. Eskala honen arabera, eguzki-argi kopuru jakin bati emandako erantzunaren arabera, giza azala sei fototipo taldetan sailkatzen da. Gaur egun oraindik larruazalaren koloreari buruzko ikerketa dermatologikoan gehien erabiltzen den tresna izaten jarraitzen du.

Fototipoa pertsona bakoitzak jaiotzen denetik eguzkira egokitzeko duen gaitasuna da. Larruazal mota larruazaleko zelulek duten melanina kantitatearen arabera izango da eta ondorioz, azal mota bakoitzak eguzki argiekiko tolerantzia ezberdina izango du (Domingo, 2000).

LARRUAZAL MOTA (fototipoa)	PERTSONAREN EZAUGARRIAK	EGUZKI IZPIEKIN ERRETZEK O JOERA	EGUZKI IZPIEKIN BELTZARANTZEK O GAITASUNA
I fototipoa	Larruazala: zuri argia Orezta: asko Ilea: gorria edo ilehoria Begiak: argiak, urdinak normalean.	Beti erretzen da.	Ez da belzten. Gorritu egiten da.
II fototipoa	Larruazala: I fototipoa baino pixka bat ilunagoa Orezta: Oso gutxi Ilea: Horia, gorria edo marroi argia Begiak: urdinak, berdeak, grisak	Beti erretzen da.	Gutxitan belzten da.
III fototipoa	Larruazala: Zuri ilunagoa Orezta: Apenas ez. Ilea: Ile iluna, marroia, beltza Begiak: grisak, marroiak,...	Ez da hain I eta II fototipoetan bezain ohikoa	Normalean, pixkanaka beltzarantzen da.
IV fototipoa	Larruazala: Beltzaran argia, oliba Orezta: Ez Ilea: marroi iluna Begiak: Ilunak	Oso gutxitan erretzen da.	Beltzaran moderatua.

V fototipoa	Larruazala: Beltzaran iluna Orezta: Ez Ilea: Beltza Begiak: Ilunak	Ez da erretzen.	Beltzaran iluna lortzen du erraz.
VI fototipoa	Larruazala: Beltza Orezta: Ez Ilea: Beltz kiskurra Begiak: Iluna	Ez da erretzen.	Kolorean ez dago aldaketarik.

Fototipoak eta jatorri geografikoei buruzko lotura hau erabili da (gutziz zehatza ez izan arren) liburuetako ilustrazioak aztertzeko:

LARRUAZAL MOTA	JATORRI GEOGRAFIKOA
I fototipoa	Eskandinavia, Irlanda, eskozia, Britainia handia...
II fototipoa	Ekialdeko Europa, Errusia,...
III fototipoa	Erdialdeko Europa, Asia (azal hori argia), mediterranea (olibondo koloreko ñabardirurak),...
IV fototipoa	Mediterranea (kafe ilun koloreko ñabardirurak), Hego Amerika (olibondo koloreko ñabardirurak), Ekialde Hurbila (olibondo koloreko ñabardirurak)
V fototipoa	Hego Amerika (azal iluna), Magrebeko lurraldeak, Ekialde Hurbila (azal iluna), Asia (azal iluna),..
VI fototipoa	Gainerako Afrika.

3. BURUTUTAKO IKERKETA:

3.1 HELBURUAK ETA HIPOTESIAK

Gaur egungo eskolen erronka handietako bat aniztasunaren kudeaketa da, gero eta kultur anitzagoa den gizarte batean bizi baikara. Marko teorikoan aipatu den moduan, literatura liburuak migrazioaren gaia landu eta kulturartekotasuna sustatzeko ikasgelarako baliabide egokia izan daitezke.

Ikerketa honen bidez euskarazko haur literaturan (EHL) kultura aniztasuna nola islatzen den eta kulturartekotasuna nola sustatzen diren ikertu nahi da. Hauek dira lan honen helburu orokorrak:

- EHLko liburuek gaur egungo EAEko eskolako errealitatea islatzen duten ikustea, aniztasun kulturala eta kulturartekotasunari dagokionez.
- EHLko liburuetan etorkinek (eta etorkinen seme alabek), jatorriari dagokionez EAEko etorkinen (eta etorkinen seme alaben), errealitatea islatzen duten jakitea.
- Migrazioaren gaia EHLko liburuetan nola agertzen den ikusi eta beste jatorri bateko pertsonaiek duten presentzia eta partehartze maila nolakoa den aztertzea.

Ikerketa lana 2 corpus ezberdinetan banatu da¹ eta horietako bakoitzerako planteatutako hipotesiak honako hauek dira:

A corpuseko hipotesiak (liburu orokorrak):

- EHLko liburuek, aniztasun kulturala eta kulturartekotasunari dagokionez, ez dute islatzen gaur egungo EAEko eskolako errealitatea (batez ere sare publikokoa).
- EHLko liburuetan agertzen diren etorkinek jatorriari dagokionez ez dute islatzen EAEko etorkinen errealitatea.
- EHLko liburuetan ez da migrazioaren gaia lantzen.
- Etorkinak (edo hauen seme alabak) ez dira EHLko liburuetako protagonistak.
- Etorkinak EHLko liburuetako protagonistak badira, gaia jorratzeko helburuz bihurtu dira protagonista.
- EHLko liburuetan kulturartekotasuna sustatzen da.

¹ Metodologia atalean zehatzago azalduta.

B corpuseko hipotesiak (liburu espezifikoak):

- EHLko liburuek aniztasun kulturala eta kulturartekotasunari dagokionez ez dute islatzen gaur egungo EAEko eskolako errealitatea (batez ere sare publikokoa).
- EHLko liburuetan agertzen diren etorkinek jatorriari dagokionez ez dute islatzen EAEko etorkinen errealitatea.
- EHLko liburuetan migrazioaren gaia lantzen da.
- EHLko liburuetan protagonistak hegoamerikarrak edo gainerako Afrikakoak (larruazal beltzekoak) dira.
- EHLko liburuetan etorkinak pobreziarekin erlazionatuta agertzen dira.
- EHLko liburuetan kulturartekotasuna sustatzen da.
- EHLko liburuetan etorkinak bere jatorrizko kulturari lotutako jardueretan agertzen dira.

3.2. METODOLOGIA

Ikerketa kuantitatiboa burutzeko orotara Lehen Hezkuntzako 1. ziklorako EHLko 85 liburu aztertu dira. Arestian aipatu bezala, ikerketa honetarako 2 corpus ezberdin erabili dira: batetik, liburu orokorrak aztertu dira, eta, bestetik, liburu espezifikoak, kultuarartekotasunaren gaiarekin zerikusi zuzena dutenak. Azterketa gauzatzeko corpus bakoitzerako fitxa espezifikoak erabili dira.



3.2.1. Ikerketarako erabilitako corpusak

3.2.1.1 A corpusa: Liburu orokorrak

Bertan Zarauzko udal liburutegiko haur saileko euskarazko liburu mailegatuenean (LHko 1.ziklokoak) zerrendako 60 liburu aztertu dira². Hau da, hurrek gehien mailegatutako EHLko liburuak, zerrenda osatzeko unean ikerketa honetan aztergai den gaia kontuan hartu gabe. Dena dela, honako liburu hauek zerrenda horretatik baztertzea erabaki da arrazoi hauek medio:

² 1.eranskina: Zarauzko liburu mailegatuenean zerrenda

- Animaliak soilik agertzen diren liburuak: azterketa honetarako ez direlako oso baliagarriak.
- Herri ipuinak: Ez dute gaur egungo errealitatea islatzen.
- Ezagutza liburuak edo ez fikziozkoak: Ez direlako haur literaturako liburuak.

Beraz mailegatuenen zerrendan 155. liburura arte aurrera eginez osatu da EHLko 60 liburuko zerrenda³. Hau da, bukaerako zerrenda 60 liburukoa izan arren, 155 liburu eskuratu eta behatu behar izan dira batzuk zerrendatik kendu aurretik.

Corpus honetarako sortutako fitxa batzuk baliatu dira liburuak aztertzeko⁴.

3.2.1.2 B corpusa: Liburu espezifikoak

Multzo honetan Lehen Hezkuntzako 1. ziklorako haurrentzat migrazioa eta kulturartekotasuna gaia lantzeko baliagarriak diren EHLko 25 liburu aztertu dira, benetan gaia nola lantzen den behatzeko helburuarekin⁵. Behaketa hau burutzeko sortutako fitxa batzuk erabili dira⁶.

3.2.2. Behaketarako erabilitako kriterioak:

EHLko liburuetakako testu eta irudiak behatu eta aztertu dira. Kasu batzuetan, batez ere, kulturartekotasuna gaia espezifikoki lantzen ez duten liburuetan, irudiak izan dira informazio iturri garrantzitsuena. Irudi bidezko adierazpide soilek bere mugak dituzte, baina informazio asko eman dezakete, kontestua analizatzeko egokiak direlako. Beraz, kasu batzuetan, testuek ematen ez duten eta ikerketa honetarako baliagarria den informazioa eskuratu daiteke. Horretarako, marko teorikoan aipatutako Fitzpatricken eskala baliagarria suertatu da.



Berak proposatutako taulan ageri den informazioan oinarrituz, liburuetan agertzen diren ilustrazioetako pertsonaiak aztertu eta sailkatu dira. Fototipoa eta jatorri geografikoen (ikaslearen edo guraso atzerritarrak dituztenen kasuan gurasoena) arteko lotura guztiz

³ 2.eranskina: A corpuseko liburuen zerrenda.

⁴ 4.eranskina: A corpuseko liburuen azterketa, liburu orokorren azterketa.

⁵ 3.eranskina: B corpuseko liburuen zerrenda.

⁶ 5.eranskina: B corpuseko liburuen azterketa, liburu espezifikoen azterketa.

zehatza ez izan arren (sailkapen honek bere mugak ditu) baliagarria suertatu da hauek EAEko datuekin alderatu eta liburuetan irudikatzen dena errealitatearekin bat datorren ikertzeko.


Beraz, fototipo eta jatorri geografikoei buruzko lotura erabili da (guztiz zehatza ez izan arren) liburuetakako ilustrazioak aztertzeke.

3.3. EMAITZAK

Jarraian, ikerketaren atal bakoitzerako planteatutako hipotesien arabera, corpus bakoitzeko liburu-zerrendak aztertu eta bildutako datuak aurkezten dira.


3.3.1. A corpuseko azterketaren emaitzak

A corpusa (liburu orokorren zerrenda) 60 liburuk osatzen dute eta hauetatik jatorri edo larruazal kolore ezberdineko pertsonaiak 17 liburutik soilik agertzen dira, hau da, %28,33an. Eta pertsonaia hauek ipuinean betetzen duten funtzioa eta duten presentzia oso urria da orokorrean.



Jatorri edo larruazal kolore ezberdineko pertsonaiak agertzen diren liburuen artean, pertsonaia hauen jatorriari erreparatzen badiogu kasu gehienetan (%48) beraien jatorria ez da aipatzen. Baina aipatzen denean gainerako Afrikakoak (%12) eta gainerako Europakoak (%12) dira gehiengoa. Kontutan hartu behar da, gainerako Europakoen artean euskaldunak ere badaudela.

Larruazalaren fototipoari erreparatuta, III. fototipoa gailentzen da pertsonaien artean (%64,1). 60 liburuetatik




46tan agertzen den fototipoa da (euskaldunak, Europa erdialdekoak, azal horidun Asiarrak,...). Eta hauetatik kasu bakar batean egiten dute jatorria Asia edo Ozeania izan eta III. fototipoak bat. Beraz, beste

kasu guztietan Europa erdialdeko jatorria dute III. fototipoa dutenek. Gainera fototipo hau agertzen den liburuetan pertsonaia kopurua eta hauek istorioan zehar duten presentzia handia izan ohi da.

V. fototipoa %12 eta VI. fototipoa %12ko protzentaian agertzen dira. III. fototipoaren ondoren, liburuetan gehien errepikatzen direnak dira hauek, bakoitza 11 liburutan agertzen da.


Soilik 4 liburutan agertzen dira I eta IV. fototipoa duten pertsonaiak (%4,4). Eta gutxien agertzen dena, II. fototipoa da, aztertutako 60 liburuaren artean soilik 3tan agertzen baita (%5).

Bizikidetzaz sustatu asmoz, etorkinen errealitatea hobeto ulertzeko, kasu askotan beraien bizitzaren errelatoetan hain eragin handia izan duen migrazio bidea aintzat hartu eta lantzen duen liburu bakarra dago zerrendan (%1.66), *Hanielleren txalupa* liburua. Gainerako 59 obretan ez da migrazioaren gaia aipatu ere egiten.




Jatorri edo larruazal ezberdineko pertsonaiak liburuaren % 8,33tan bakarrik dira protagonista, hau da, aztertutako liburuaren artean 5etan: *Agur Pakito!*, *Ilargia lapurtu dute*, *Munduko ipuintxo bat gauero*, *Xarrik badaki aukeratzen* eta *Hanielleren txalupa*.

Eta protagonistak diren kasuan, 4 liburutan gaia jorrazteko helburuz bihurtu dira protagonista.




3.3.2. B corpuseko azterketaren emaitzak


Liburu espezifikoaren kasuan, pertsonaien jatorriari dagokionez 21 liburutan (%84) daude gainerako Europako (Europa ekialdea ez den beste Europa) jatorria duten pertsonaiak, tartean euskaldunak. Magreb herrialdeetako eta gainerako Afrikako jatorrizko pertsonaiak dira jatorriari dagokionez 2. postuan berdinduta daudenak, aztertutako liburuen %36tan agertzen dira, hau da, 9 liburutan. Liburu askotan ez da aipatzen pertsonaia batzuen jatorria. Eta 6 liburutan agertzen dira Asia edo Ozeaniako jatorria duten pertsonaiak (%24). Oso liburu gutxitan agertzen dira Hego Amerikako, gainontzeko Amerikako edo Ekialdeko Europako jatorria duten pertsonaiak.



Larruzalaren fototipoari dagokionez, III. fototipoa da liburu gehienetan agertzen dena. Aztertutako 25 liburutatik 22tan (%88) dago presente eta hauetatik 5 liburutan soilik dago Asiar jatorriko pertsonaiekin zuzenki lotuta. Beraz, gehienetan Europa erdialdeko pertsonaiak dira.




V. fototipoa duten pertsonaiak 16 liburutan agertzen dira (%64) eta VI. fototipoa dutenak (gainerako Afrikako jatorria dutenak) berriz 12 liburutan (%48). Azaleko II. eta IV. fototipoa dutenak dira aztertutako liburuetan gutxien agertzen direnak.



Ezkerreko grafikoan ikusi daitekeen moduan, migrazio bidea 25 liburutatik 5etan erakusten da (%20), zehazki *Koxo Koxoa!*, *Nikolas*, *Bidaia luzea*, *Usoa hegan etorritako neskatoa* eta *Bidaia* liburuetan.

Protagonisten jatorriari erreparatzen badiogu, aztertutako liburuen artean, 9 liburutan ez da aipatzen hauen jatorria (%36), 5 liburutan Magreb herrialdeetako da protagonista (%20) eta beste 5 liburutan gainerako Afrikakoa (%25). Asiakoak dira 2 kasutan (%8) eta ez dago Hego Amerika, gainerako Amerika edo Ekialdeko Europako protagonista duen libururik.



Liburuak irakurri eta aztertu ondoren ikus dezakegu etorkinak kasu bakarrean lotzen direla pobreziaarekin, *Semaforoko ipuina* liburuan.

Eta etorkinak bere jatorrizko kulturari lotutako jardueretan 6 liburutan soilik agertzen dira (%24): *Masai txikia*, *Dragoia*, *Nasrudin*, *Koxo koxoa!*, *Bakarrik eta buztangabe* eta *Kaiuko bat elurretan* liburuetan. Gainontzeko liburuetan ez dira bere kulturari lotutako jarduerak burutzen ari.



4. ONDORIOAK:

4.1. BURUTUTAKO HIPOTESIEN ONDORIOAK

Emaitzak aurkeztu ondoren, corpus bakoitzerako hasieran planteatutako hipotesiak egokiak ote diren egiaztatu da.

4.1.1. A corpuseko hipotesien ondorioak

1. HIPOTESIA: EHLko liburuek, aniztasun kulturala eta kulturartekotasunari dagokionez, ez dute islatzen gaur egungo EAEko eskolako errealitatea (batez ere sare publikokoa).

Planteatutako hipotesia egokia da, aztertutako liburuek ez dute islatzen EAEko errealitatea. Emaitzetan argi ikus daitekeen moduan, 60 liburutatik jatorri ezberdineko pertsonaiak 17 liburutan soilik agertzen dira eta zoritxarrez pertsonaia hauek ipuinean betetzen duten funtzioa eta duten presentzia oso urria da orokorrean.

Gaur egungo EAEko gizartea eta honen isla den hezkuntza sare publikoko eskoletako errealitatea EHLko liburuek islatzen dutena baino anitzagoa da.

2. HIPOTESIA: EHLko liburuetan agertzen diren etorkinek jatorriari dagokionez ez dute islatzen EAEko etorkinen errealitatea.

Egindako hipotesia egokia da. EHLko liburuetan etorkinen gehiengoa ez dira hegoamerikarrak, errealitatean ez bezala. Kasu gehienetan pertsonaien jatorria aipatu ez arren, fototipoari eta kulturako elementuei esker (beloa, arropak,...) ondoriozta daiteke ez direla hegoamerikar jatorrikoak.

